34. zbk.

kotarro

2015eko abendua — debaldeko alea

Garean-Jarduerak

TXOKOLIPUINAK
Urtarrilak 27 eta Otsailak 24
18:00etan La Bota Elkartean

LIZARRAN KANTUZ
Urtarrilak 16 (Adi! Aurreratuko dugu hurrengo larunbatetan Kaldereroak eta herri inauteriak direlako)
Otsailak 27
19.30ean Baxenabarra kaletik abiatuta

LIZARRAN KANTUZ TXIKI
Abenduak 19 eta Urtarrilak 30
18:30ean Baxenabarra kaletik abiatuta.

IRAKURLE KLUBA
Urtarrilak 28
Su zelaiak: Mikel Peruarena.

Otsailak 25
Plazeraren gau ilunekoak:
Francis Scott Fitzgerald

BESTELAKOAK
Abenduak 19an
KARLISMOAREN MUSEOA
Bisita gidatua (euskaraz) 17:30ean

Abenduak 24
OLENTZERO
17.30tik Ikastolatik abiatuta.

Abenduak 26an
KARLISMOAREN MUSEOA
Haurrentzako tailerra (euskaraz) 17:30ean.

Abenduak 29
ENE KANTAK: "Oneka Marrazoa"
(Antzerki berria, freskoa eta dantzagarria)
Los Llanos Kultur Gunean, goizez.

Abenduak 28, 29 eta 30
HAURRENTZAKO PARKEA
Puzgarriak, rokodromoa, jolasak...
(Begirale euskaldunak)
Lizarra pilotalekuan, arratsaldez

Sintonizatu Lizarraldea

01110110001… mundu digitala analogikoa ordezkatzen ari den honetan, Lizarralde digitalean kate berria sortu da: Lizarraldea Telebista

Lizarraldea 73 herrik osatzen dute eta, 2014ko datu ofizialen arabera, 64.302 biztanlek. Lizarra hiritik hasi eta Vianaraino, iparraldetik Ameskoa eta Ega erribera hegoaldetik, ekialdean berriz Izarbeibar eta Tafallerria. Horiek dira Merindade zaharraren mugak.

Lizarraldeari mugak jarri dizkiogu bai, baina zer esan barne mugen inguruan? Zer dute komunean Urbasak eta Erriberak? Goiko eta beheko Egak? Gesalazko herri txikiek eta Viana historikoak? Muga horiek lausotu nahian jaio da Lizarraldea Telebista.

Kulturak, kirolek, jaiek… beraz, badute hedatzeko tresna berri bat.

Honakoa, Lizarraldeko herrien ikusentzunezko albiste eta erreportajeak biltzen dituen telebista da. Interneten zintzilikatua eta nahieran ikusgai, Lizarraldean egiten diren ekintzen zabaltze tresna dugu berau. Kulturak, kirolek, jaiek… beraz, badute hedatzeko tresna berri bat.

Telebista 2015eko urtarrilaren 16an sortu zen. Dena den, jaio aurretik, hedabidea diseinatzeko garaian, honek beteko zituen xedeak buruan zituen Hedabideko taldeak. Batetik, Lizarraldeko herriak ezagutzera ematea; hauek, arkitektura, gastronomia, jaiak zein natur eremuen aldetik aberatsak ditugu. Bigarrenik, eskualdeko herrien arteko elkarlana eta kohesioa sustatzea. Hirugarrenik, elkarte eta kolektiboen ekintzei oihartzuna ematea. Eta, azkenik, Lizarraldeko enpresa eta ekimen pribatuen publizitate tresna bilakatzea: Aisialdia, merkataritza, zerbitzuak etab.

Ikusi dugu bada zertarako jaio den egitasmo berri hau. Hala ere, ezin ongi irudikatu ez bada webgunea osatzen duten atalak ezagutu gabe. Gure eskualdean dozenaka herri baditugu, hemen dozena batek osatzen du proiektu digitalaren zutabea:

Atalak

SARRERA: Sarrerako orrialdea, agenda eta telebistaren edukien zerrenda. Agendak, Lizarraldean ospatzen diren ekintza guztiak biltzen ditu, gaur egun interneten dagoen gure herrietako agendarik osatuena da: kirol ekintzak, kultur saioak, jaiak, etab.

BERRIAK: Albisteak, prentsa-oharrak.

KULTURA: Lizarraldeko ekintza kulturalen albisteak: kontzertuak, antzezlanak, erakusketak...

KIROLAK: Lizarraldean ospatzen diren kirol ekitaldien albisteak.

JAIAK: Lizarra hiriko ospakizun berezien erreportaje luzeak eta herrietan ospatzen diren festa eta tradizioen bideo gunea.

BIDEZ BIDE: Turismoari bideratutako erreportaje luzeak (Donejakue Bidea, espazio naturalak, bide berdea, ardoaren ibilbidea, etab.) sustatu nahian.

ELKARRIZKETAK: Lizarraldeko elkarteei elkarrizketak, haien ekimenei oihartzuna ematearren.

EKINTZAILEAK: Enpresa eta ekintza pribatuei buruzko erreportajeak.

ZURE HITZA: Kaleak hartzen du hitza: berriei buruzko galderak eta inkestak.

ZURE BIDEOAK: Zure bideoak beste ikusleekin konpartitzeko aukera.

ATZERA BEGIRA: Lizarraldeko bideo zaharren gunea.

HEMEROTEKA: Aurretik azaldutako bideo guztien biltegia, ataletan eta urteen arabera antolatuak.

Nolako bideoak dira? Non ikus daitezke? Zer hizkuntzatan?

Bideoak bi motatakoak izan daitezke, albisteek 1-3 minutu bitarteko luzera izan ohi dute, erreportajeek, ordea, 8-10 minutu bitarte. Irudi kalitate handiko bideoak dira, HD, eta internet bidez edozein leku eta momentutan ikus daitezke. Gainera, sare sozialen bidez (Youtube, Facebook eta Twitter) azkar zabaltzen dira bideo berriak.

Telebistaren web orria www.tierraestellatv.com badugu ere, etorkizunean, internetez gain, egitasmoak telebista orokorrean egon nahiko luke zuntz optikoaren bitartez.

Nortzuk gara: atzean, Daniel Gutiérrez; aurrean, ezkerretik eskuinera, Iratxe Pérez, Julen Urra, Aintzane López de Goikoetxea eta Lara Villanueva.

Grabaketa Viana-ko jaietan: Rebeca Ortega (kazetaria) eta Iratxe Pérez (kamara).

Telebistak erabiltzen dituen hizkuntzak euskara eta gaztelania dira. Lizarraldeko biztanleen %10,69 euskalduna da (2011ko Nafarroako Gobernuko ikerketa) eta elebidun hartzaileen kopurua beste %11,25 inguru, euskara bultzatzeko tresna ere izan liteke. Bestetik, turismoari bideratuta dauden zenbait erreportaje luzetan ingelesezko edo frantsesezko azpitituluak erabiliko dira salbuespen gisa.

LIZAR
Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINTZA
Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarjard@hotmail.com

ekolore lizarra .com
Mundua deskubritzeko
jostailu eta jolasak
Comercio 22 • 31200 Estella-Lizarra • 948 985 306

Elkarrizketa

Iratxe Perez, Lizarraldea Telebistaren sortzailea

Iratxe Perez grabaketa batean Urbasan.

Kotarro - Telebista digital bat sortu duzue, non ibili zara orain arte? Zertan aritu zara? Non lan egin duzu?

Iratxe Perez - Andoaingo Zine Eskolan zuzendaritza ikasi ondoren, edizioa eta postprodukzioa ikasi nuen Madrilen. Han Estatu mailako telebistetan hasi nintzen lanean: TVE, Antena3TV eta TeleMadrideko telesailetan. Telebistatik zinegintzara egin nuen salto eta orduz geroztik, zine pelikulatan eta publizitatean egiten dut lan. Ekoiztetxe propio bat ireki dut Lizarran (Simetría Producciones) eta bai kamara, bai edizio tresna propioak izanda, Lizarraldean telebista digital bat sustatzeko ideia bururatu zitzaidan. Lan taldea osatu eta horretan gabiltza ilusio handiarekin.

K - Nola eusten dio horrelako egitasmo batek ekonomikoki?

IP - Jatorrizko egitasmoa autogestiozko proiektu bat izatea da: baliabide propio eta publizitatearekin mantendu ahal izatea. Zuntz optikoaren bitartez, telebista orokorrean kanal bat izatea da gure asmoa (gaur egun Lizarraldeak zuntz optikorik ez du, baina antza denez 2016.ean izanen dugu Lizarran behintzat).

Beraz, hasieratik telebistari irteera ematearren, web orri baten bitartez zintzilikatzen ditugu bideoak interneten. Honek abantailak ditu (edozeinek ikus ditzake munduko edozein lekutik eta nahi duenean) baina baditu ere bere mugak: interneteko edukiak mobil, tableta edo ordenagailu baten bidez ikusten ditugu gehienbat eta horrek eduki motzak izatera baldintzatzen gaitu.

Telebistan, berriz, ordu bete edo bi orduko programak ikus ditzakegu lasai eta patxadaz, publizitate multzo handiagoarekin kontatuz. Beraz, gaur egun, web orriarekin soilik ekonomikoki mantentzea konplexua da… horregatik beste errenta iturri batzuetan pentsatzen ari gara, crowdfunding-a adibidez.

K - Ibilbide luzea egin duzu, baita Euskal Herritik kanpo ere, bide horretan zer eskaini dizu euskarak? Zertan lagundu? Zaildu al dizu zerbait?

IP - Gehienbat euskal zineman lan egiteko aukera eskaini dit: Pelikuletan "skript" lanetan ibiltzen naiz (zuzendari laguntzailea) eta, besteak beste, gidoi aholku eta zuzenketak egin behar ditut. Horretarako, hizkuntza ezagutzea derrigorrezkoa da nire lanpostuan. Zailtasunik ez zait bururatzen… Hizkuntzak oso gustukoak ditut nahiz eta gaur egun denborarik ez izan berriak ikasteko eta ikasitakoen jakin maila hobetzeko. Baina niretzako euskara ez da hizkuntza bat soilik, nire jaioterria ulertu eta ezagutzeko bide bat ere bada.

K - Dokumental bat aurkeztu berri duzu, proiektu berriak izanen dituzu…

IP - Bai noski: Lehenik eta behin, dokumentala zinemaldi internazionaletan aurkeztea. Gainera material didaktiko bat prestatzen ari gara 12-16 urte bitarteko gazteentzat, dokumentalean aurkezten diren gaiak eskoletan landu ahal izateko (proiektuaren web orria www.180rumboalaluz.com).

Bestalde, fikziozko pelikula baten gidoian ari naiz lanean: nire ekoiztetxeko lehenbiziko pelikula izango da. Hamabi urte daramatzat zuzendari laguntzaile lanean eta zuzendaritzara saltoa emateko ordua iritsi dela sentitzen dut. Aurrera ateratzea oso konplikatua izango dela jakin badakit baina betidanik izan dut argi, zine eskolan sartu nintzenetik, pausoz pauso, lan da lan eta burugogorra izaten, helburu guztiak lortu ahal daitezkeela. Eta ni oso burugogorra naiz [barrezka].

K - Ikus-entzunezkoen munduan murgilduta zabiltza, ba al duzu tarterik patxadaz irakurtzeko? Zer liburu gomendatuko zeniguke?

IP - Egia esan ez dut tarte handirik eta Lizarraldea telebistarekin hasi ginenetik are gutxiago! Nire lanarekin zerikusia duten liburuak irakurtzen ditut gehienbat, eta gomendatuko ditut irakurri berri ditudanak, gainera Lizarrako beste emakume batek idatziak: María Castejón-en Fotogramas de género eta Más fotogramas de género. Pelikuletan emakume eta gizonen pertsonaiek betetzen dituzten "rol"-ak aztertzen ditu eta tristea da baina gehienetan, gure zinemak, estereotipo klasikoak indartzen ditu. Honek asko kezkatzen nau: zine, telebista eta publizitate edukiak egiten ditugunok, badugu erantzukizun handia nire ustez lan honetan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak mantendu edo hautsi ahal izateko.

Euskarazko Produktuen Katalogoa

Oraindik zalantzan Gabonetarako opariak aukeratzeko? Liburuak, diskak, DVDak? Jostailuak edo jokoak? Gure herriko dendetara jantzita joateko, Euskarazko Produktuen Katalogoa.

Euskarazko Produktuen Katalogoa 1998. urtean argitaratu zen lehendabiziko aldiz. Nafarroako udal gutxi batzuek abiatu zuten ekimena orduan, eta 140 toki-entitate dira gaur egun parte hartzen dutenak, 200 udaletik gora guztira. Lizarra horien artean.

Euskal Herriko lurralde eta ezaugarri oso ezberdinetako hainbat herritako udalek egin dute bat euskarazko produktuak sustatzeko egitasmo honetan: handiak nahiz txikiak; euskaldun kopuru altuko nahiz baxukoak…

Gurasoentzako eta 12 urte bitarteko haur eta gazteentzako produktuak dira

Era askotako produktuen berri ematen da katalogoan. Gurasoentzako eta 12 urte bitarteko haur eta gazteentzako produktuak dira, eta zortzi ataletan sailkatuta daude: aldizkariak, musika, liburuak, komikiak, informatika, jostailu eta jokoak, filmak, eta gurasoentzako materiala. Bertan adierazten dira produktuen izena eta irudia, egilea, adin-tartea, argitaletxea, eta gutxi gorabeherako prezioa.

Katalogoa bi euskarri ezberdinetan zabaltzen da. Alde batetik paperezko edizioa dago: urtean behin argitaratu eta hedatzen da, eta 120.000 ale banatzen dira, honakoa 18. edizioa dugu. Eta bestetik, www.katalogoa.eus helbidean, Interneteko edizioa dago. Bertan paperezkoan sartu ez diren produktu gehiago ere aurkitu daitezke eta maiztasunez eguneratzen da.

Beraz, euskara oparitzeko, eta euskaraz bizi ahal izateko, Gabonetan lagun izanen dugu Euskarazko Produktuen Katalogoa.

Txokolipuinak: 2007-2015

Garean Elkartearen sorrerarekin batera jaio eta bizi-bizirik dirauen jarduera ekarri nahi izan dugu Kotarrora: Txokolipuinak, arrats arras goxoak pasatzeko asmakizun paregabea.

Gareanen hasierako bilera batean agertu zen ideia, kide batek mahaigaineratuta. Nafarroako Antzerki Eskolan, astean behin-edo, horrelako zerbait egiten zutela, esan zuen. Gurean antzerkia baino ipuinak izanen ziren protagonista. Ideia borobila zen. Martxan jarri behar genuen.

Jardueraren izenburua azkar sortu zen: "Txokolipuinak": txokolatea eta ipuinak.

2007ko azaroaren 7an egin zen lehendabiziko saioa, Kiroldegiko Erabilera Anitzeko Aretoan, eta 74 haurrek parte hartu zuten. Lizarrako Garazi Tristan eta Irati Txasko gazteak arduratu ziren ipuinak kontatzeaz eta musikatzeaz. Lau ipuineko emanaldia eskaini zuten eta saioaren erdialdean umeek txokolatea eta ogia askaldu zuten. Askariaren banaketaz bi sukaldari arduratu ziren, goitik beheiti dena zuriz jantziak.

Ordutik 9 urte igaro dira, 60 saio inguru, eta bizi-bizirik mantentzen dira Txokolipuinak, bataz beste 45 haur inguru biltzen direlarik hilero.

Ipuin kontalari bikainak izan ditugu gure artean urte hauetan guztietan: Birjinia Albira, Koldo Aldai, Marta Bakedano, Ines Bengoa, Ainhoa Carrera, Patrizia Eneritz, Luisfer Etxeberria, Maider Galarza, Aitor Irazustabarrena, Maipaz Iturbe, Miren Lizasoain, Inma Lopetegi, Xabier Lopez, Ani Martinez de Lagran, Izaskun Mugika, Ainhoa Ruiz (Ebarekin batera) eta Pello Zabala.

Beraz, zorionak, Txokolipuinak, eta zorionak posible egiten (eta egin) dituzuen guztioi.

Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea
Enoturismo
Bisita gidatuak
Ardo-dastaketak
Lakar (Deierri) NAFARROA
info@lezaun.com - www.lezaun.com
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

Orreaga
Kafetegia
Denon topagunea.
San Andres kalea • Lizarra

Foto-inkesta

Telebista

Telebista gain behera ote dago interneten sarrera dela eta? Edo besterik gabe telebista ikusteko era ari da aldatzen? Azken boladan Lizarraldean telebista dela eta pare bat berri izan dugu. Batetik Lizarralde Telebista martxan jarri dela, bestetik ETB etxeetara iristeko unea hurbiltzen ari dela. Gai honetaz egin dugu fotoinkesta:

1- Ba al dakizu Lizarraldea Telebista, bertako telebista lokala, sortu dela, elebiz, gaztelaniaz eta euskaraz? Zer deritzozu?

2- ETB hainbat urte egoera alegalean izan da, orain badirudi normalizatuko dela bere egoera... Zuk zer deritzozu? Zer zenuen edo duzu gustuko?

3- Gazteek gero eta gutxiago ikusten omen dute telebista, eta gero eta gehiago Interneteko ikusentzunezkoak... Eta zuk?

Lorea Orokieta

1. Ez nekien zegoenik ere, baina oso interesgarria izan daitekeela uste dut. Alde batetik Lizarran zerbait gertatuz gero jendeak hurbiletik informazioa jasotzeko, bestetik kanpotarrek ere jakiteko.

2. Gertatu zena adar jotzea iruditzen zait, lehenengo ipini, gero kendu... Niri Goenkale gustatzen zait.

3. Nik biak ikusten ditut. Telebistan umeari gustatzen zaizkion kateak.

David Barcenillas

1. Ez nekien. Lizarrako berriak emateko eta bertakoei interesatzen zaiena, gainera internetez bada alde guztietara zabalduko da eta edozein tokitatik ikusi ahal izango da.

2. Orain arte Lizarran gure auzoan ez dugu ikusteko aukerarik izan. Gure etxean, bi seme-alaba izanik batez ere marrazki bizidunak ikusten ditugu. Perfektua iruditzen zait ETB egotea.

3. Nik zorionez telebista gutxi ikusten dut. Mugikorra baliatuz zerbait gehiago, baina ez gehiegi, wasapeko bideoak ikusteko joerarik ez dut. Nire ustez gazteei gero eta menpekotasun handiagoa ari zaie sortzen.

Miren Lizasoain

1. Lehenengo berria izan da. Oso ideia ona iruditzen zait, zenbat eta aukera gehiago hobe. Gainera, elebiduna bada euskaldunentzat ere berri ona. Lokalak plus bat dauka, nahikoa globalizatuta bizi garelako. Beste kateetan trataera globala, nazioartekoa da...

2. Bazen garaia ikusteko garaia egoteko! Batez ere ETB1, euskarazkoa, euskara hutsean delako. Nik garai batean Mihiluze eta Hitzetik hortzera ikusten nituen, eta oraindik ere tarteka ikusten ditut.

3. Gure etxean telebistarik ez izatea aukeratu genuen eta zerbait nahi dugunean geuk nahi duguna ikusten dugu internetez. Nahieran-en denetik dago, dokumentalak, pelikulak... Aukera handia ematen dizu internetek zapping egin beharrik gabe.

Mikel Bakaikoa

1. Ez nekien. Ongi iruditzen zait, batez ere hemengo berriak jakiteko. Aldizkariak dauden bezala, suposatzen dut horrelako zerbait egingo dutela.

2. Nahiz eta nik txikitan besterik ez ikusi ETB, oso ongi iruditzen zait Lizarran ikustea. Alde batetik aniztasun gehiago izateko eta bestetik euskaraz delako. Ez zait iruditzen ongi Estatuak espresio bide bat debekatzea.

3. Nik telebista gutxi edo zero ikusten dut, ordenagailua entxufatzen diot telebistari eta neuk nahi dudana ikusten dut publizitaterik gabe. Esaten da pirateoa dagoela, egia da, baina azken boladan ez dago ezer deskargatu beharrik, online ikus daiteke, abantaila ikaragarria da. Gainera badaude interneten plataforma bereziak, Netflix...

GARI eta SEI

ANDER SOLANO



denborapasak

Gurutzegramak



Telebistan ETB

Ezker eskuin

3. ETBko telesail ospetsuena.
4. ETBko kirola.
7. Lizarraldean ETBren lehenbiziko antena kokatu zen mendia.

Goitik behera

1. ... hortzera.
2. ETBko literatura telesaioa.
3. ETB1eko berri saioa (elk.).
5. ETB2ko notizia saioa.
6. ETBko aurkezle ezaguna.

Euskalglifoa

Telebistan

LIBRERIA-PAPELERIA

INO

LIBURUDENDA-PAPERDENDA

Zapateria Kalea, 3
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA

Jatetxea

Volante

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

Abendua / Eguberriak 2015

Abenduaren 17an
Gabon-kantak kalean
Lizarrako kaleetatik, 17:30ean.
Kontzentrazioa Foruen plazan, 18:15ean.

Abenduaren 18an
Ikus-entzunezkoa: "Matamorphosis".
Los Llanos Kultur Gunean, 20:30ean.
Fikzioa. Metrajea: 45 minutu.
Gidoia-zuzendaria: Paco Ganuza.
14 urtetik goitikoentzat gomendatua.
Sarrera doan.

Abenduaren 19an
Ereintza Abesbatza
San Joan elizan, 20:25ean.

Abenduaren 20an
Asociacion Gayarre de Amigos de la Ópera
Los Llanos Kultur Gunean, 12:00etan
Sarrera: 2 € (14 urtetik behitikoak doan).
Antolatzailea: Done Jakue Bidearen Lagunen Elkartea.

Abenduaren 23an
Josetxo Arbeloa eta Salvador Montero "Zeltiar Musika"
Los Llanos Kultur Gunean, 20:30ean.
Sarreraren prezioa: 8 €.

Abenduaren 26an
Aiegiko Donejakue Bidea Abesbatza eta Metal-Laukotea
San Joan elizan, 20:45ean.

Abenduaren 27an
Lizarrako Musika Banda Eguberrietako kontzertua
Los Llanos Kultur Gunean, 12:30ean.
Sarreraren prezioa: 5 €.

Abenduaren 28an
Haurrendako Antzerkia (gaztelaniaz)
El cau de l´unicorn
"Akäshia El viaje de la luz"
Los Llanos Kultur Gunean, 12:00etan.
Sarreraren prezioa: 3 €.

Haurrendako parkea (Eskalada-murrua, puzgarriak, jolasak eta ludoteka)
Lizarra pilotalekuan, 16:00etatik 20:00etara.
Sarrera doan.

Bertako eta X-Treme film laburren erakustaldia
Los Llanos Kultur Gunean, 20:00etan.
Sarreraren prezioa: 3 € (bi emanaldiak sartzen dira).

Abenduaren 29an
Haurrendako Antzerkia
ENE KANTAK: Oneka marrazoa (euskaraz)
Los Llanos Kultur Gunean, 12:00etan.
Sarreraren prezioa: 3 €.

Haurrendako parkea (Eskalada-murrua, puzgarriak, jolasak eta ludoteka)
Lizarra pilotalekuan, 16:00etatik 20:00etara.
Sarrera doan.

Bertako eta X-Treme film laburren erakustaldia
Los Llanos Kultur Gunean, 20:00etan.
Sarreraren prezioa: 3 € (bi emanaldiak sartzen dira).

Abenduaren 30ean
Errusiako Balleta "Maria Gusarenco"
Los Llanos Kultur Gunean, 20:30ean.
Sarreraren prezioa: 12 €.

Haurrendako parkea (Eskalada-murrua, puzgarriak, jolasak eta ludoteka)
Lizarra pilotalekuan, 16:00etatik 20:00etara.
Sarrera doan.

Urtarrilaren 2an
Haurrendako zinea
Los Llanos Kultur Gunean, 17:00etan.
Sarreraren prezioa: 2 €.

Urtarrilaren 3an
Haurrendako zinea
Los Llanos Kultur Gunean, 17:00etan.
Sarreraren prezioa: 2 €.

Urtarrilaren 4an
Haurrendako zinea (euskaraz)
Los Llanos Kultur Gunean, 17:00etan.
Sarreraren prezioa: 2 €.

Urtarrilaren 7an
Ikus-entzunezkoa: Opera Gala liriko handia
Frai Diego Kultur Etxean, 19:30ean.
Sarrera doan.
Antolatzailea: ALTE (Estellerriko Lirika Adiskideen Elkartea).

Urtarrilaren 8an
Mikel Andueza Quartet
"5 segundoro" diskaren aurkezpena
Los Llanos Kultur Gunean, 21:00etan.
Sarreraren prezioa: 6 €.

kotarro
34. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak

Garean Euskaldunon Elkarteak ez du inolako ardurarik hartzen, *Kotarro* aldizkarian agertzen diren artikuluen edukiaren gainean, egileena baita bere osotasunean.

Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700

paper birziklatua

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.